

BALIO PROPOSAMENA

(KOMPRAPP)

Badakizu urtean 246 aldiz inguru zoazela supermerkatu? Beste modu batean esanda, badakizu zure bizitzako 4 urte inguru galtzen dituzula bertan? Izan ere, zenbat aldiz egon zara supermerkatuan denbora galtzen ez dakizulako zer daukazu hozkailuan? Badakizu zenbat diru eta denbora gastatzen duzun aurrekoa dela eta?

Orain honako hau bukatuko da! Soluzio bat daukagu! KOMPRAPP!

Komprapp-etik erabaki dugu gure aplikazioa eta kamerak funtsezkoak direla hainbat arrazoiengatik:

Lehenik eta behin, guretzako zure denbora oso garrantzitsua da. Beraz, gure aplikazioari esker erosketak egiteko orduan denbora asko aurreztuko duzu!

Bigarrenik, ziur gaude erosketak egitera joan zarela eta sentsazio zehatz bat eduki duzula: zerbait erosi behar duzu baina nahiz eta asko pentsatu ez duzu gauza hori gogoratzen. Gure kamerei eta gure aplikazioari esker, zure hozkailuan zer dagoen ikusteko aukera izango duzu. Beraz, erosketak egiterakoan, bakarrik behar dituzun elikagaiak erosiko dituzu.

Hirugarrenik, ideia hau aurrera eramateko langileak behar ditugu. Ondorioz, enplegua sortuko dugu.

Azkenik, gure aplikazioarekin familiek dirua aurreztu dezakete. Izan ere, hauek bidaiak aurreztu ez ezik, bakarrik benetan behar dutena erosiko dute. Ba al dago gauza hobeagorik?

Laburbilduz, KOMPRAPP-etik kostuak murrizteaz gain, gauzak errazago egingo dizkizugu! Izan ere, aplikazioak hainbeste erraztasun ematen ditu erosketak egiteko gogoak sartzen direla. Alegia, gaurtik aurrera aplikazio honi esker erosketak egitea ez da izango eragozpen bat, jarduera dibertigarri bat

baizik!

Aplikazio honetaz gozatzeko, hozkailuan kamera txiki bat ipiniko dugu, angelu perfektuan; honela, bertako produktu guztiak kamararen agerian gelditzea lortuko dugu. Gainera, kamera malgua izango da, beraz, kontsumitzaileek hozkailuaren atal guztiak ikusteko aukera izango dute.

Bestalde, produktu hauek aplikazioari lotuta egongo dira “chip” baten bitartez. Beraz, Komprapp-ek produktu bakoitzaren ezaugarriak adierazteaz gain (tenperatura, ea produktuak ustelduta dauden...), produktua faltatuko balitz detektatu egingo luke. Adibidez, zure erosketa zerrenda pretsonalizatuan produktu bat falta izango balitz, aplikazio honek daukazun gailu teknologikoari mezu bat bidaliko lioke.

Aurrekoa kontuan hartuta esan dezakegu KOMPRAPP erosotasun asko eskaintzen dituen aplikazio bat dela, honela, edozein bezero horretaz baliatzeko eta bere erosketak erraztazunez egiteko. Ez al da bikaina?

Denbora asko egon gara ideia hau lantzen eta ahalegin asko egin ditugu zuen beharrak asetzeko. Hala ere, azkenean lortu dugu ideia hau aurrera eramatea eta app hau Google Play-n aurkitu dezakezue!

